

GETXO KIROLAK TEA-N ZERBITZUAK EMATEAGATIK ETA KIROL ETA KULTUR JARDUERAK EGITEAGATIK SORTUTAKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA. 2022. URTEA

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunen Foru Arau erregulatzailan aurreikusitakoaren arabera, Getxoko Udalak ondorengo Eranskinean jasotzen diren zerbitzuak eman eta kirol eta kultur jarduerak egiteagatik sortzen diren tasak ezartzen ditu, Ordenantza honetan ezarritako eran, haiek honen barne daudelarik.

2. Artikulua

Ordenantza udal-mugarte osoan aplikatzen da.

II.- ZERGA EGITATEA

3. Artikulua

Tasa honen zerga egitatea Getxo Kirolak zerbitzua edo jarduerak egitean datza, subjektu pasiboari eragin diezaioten edo on egin diezaioten era partikularrean. Subjektu pasiboaz dihardute edo eragiten dutela ulertzen da hark berak eragin dituenenean zuzenean edo zeharka.

Zergapedunari ez dagokion zioengatik, zerbitzua edo aktibitatea ematen edo eskaintzen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuli egingo da.

III.- SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua

Subjektu pasiboak dira zergadun gisa, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean jasotako pertsona fisikoak eta juridikoak eta erakundeak. Zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztenak, edo horien onuradun edo jasale direnak.

5. Artikulua

Tasak ordaindu behar dituzte:

Partikularrek eskatu dutela eta egindako zerbitzu edo jardueri dagokienez, eskatu dutenek eta hauen onuradun direnek.

IV.- SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

6. Artikulua.-

2 hobari-mota jasotzen dira:

A).- Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren arabera: abonua eta ikastaroen kuota sartzen da.

B).- Familia ugarietako hobaria familiaren errenta estandarizatuaren arabera: Abonua kuota saritzen du.

Bi hobariak aplikatzeko baldintzak betetzen badira, subjektu pasiboarentzat onuragarriena dena soilik aplikatuko da.

6.1. Edozein hobari-motarako eskaerak aurkezteko epea:

Hobaria soilik urtebeterako emango da, eta ezingo da automatikoki berritu. Pertsona abonatuak, hots, alta emanda daudenek eta urtarilaren 1ean zerbitzua luzatu nahi dutenek, hurrengo ekitaldian hobaria izateko, tasaren sortzapen denboraldiaren aurreko urriaren 1etik azaroaren 30era bitarte aurkeztuko dituzte eskaerak eta dokumentazioa.

Alta berrien kasuan, eskaera eta dokumentazioa aurkeztuko dituzte alta eman eta gehienez 15 eguneko epean, Makalen etorbidean (z/g) edo zuzenbidean onartutako beste edozein bitarteko edo lekutan.

Kuotak dagokion hobaria aplikatuta kobratuko dira.

Eskaerak adierazitako epearen barruan aurkezten ez badira, hobaria ukatu ahal izango da, epez kanpo ibiltzeagatik.

6.2 Eskaerekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskatzaileek ezarritako epearen barruan aurkeztuko dute TEAn, Makalen etorbidean (z/g) edo zuzenbidean onartutako beste edozein bitarteko edo lekutan, tasaren sortzapenaren aurreko bi urteetako ondorengo dokumentazioa:

a) Eskaera beteta.

b) Bizikidetzaren unitateko pertsona guztien NANaren fotokopia edo, horren lekuan, familia-liburuaren fotokopia.

c) Familia ugarietako dagokienez: indarrean den legediaren arabera indarreko Familia Ugariaren Tituluaren fotokopia, Bizkaiko Foru Aldundiak emana.

- d) Banku-helbideratzea eta baimena (erakundea eta libretaren edo kontu korrontearen zenbakia).
- e) Azken Errenta Aitorpenaren fotokopia; hots, familia ugaria osatzen duten kideek Ogasunean aurkeztutakoarena. Aurkeztu beharrik ez badute, Ogasunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, egoera hori jakinarazteko, eta erakunde berak emandako agiria errentaren gaineko datu fiskalekin.
- f) Zinpeko aitorpena, adierazitako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

Behin hobaria emanda eta etorkizuneko hobariak eskatze aldera, egoera ekonomikoa aldatu ez bada, soilik eskaera eta zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dira.

Pertsona onuradunak izan daitezkeen guztiek Getxon bizilekua duten ofizioz egiaztatuko du Getxo Kirolakek.

6.3. *Ebazpena emateko prozedura*

Eskaerak entregatzeko epea amaituta, eta eskaera bakoitzean dagoen dokumentazioa egiaztatu ondoren, TEAk eskaerak ebatzi eta eskatzaileei horien berri emango die.

Aurrean aipaturiko epearen azken egunetik zenbatzen hasi eta gehienez hiru hilabeteko epean, hobaria ematearen edo ez ematearen gaineko ebazpena jakinaraziko da. Hobaria eman den kasuan, dagokion tasaren zenbatekoa kobratuko da, taularen arabera hobaria aplikatuta, urteko kuotaren tasan zein jarduera fisikoko ikastaroen tasan.

7. Artikulua.-

Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren arabeko hobaria:

1. *Hobariaren xedea*

Ordenantza honetan araututako hobarien xedea da ekonomikoki behar gehien duten pertsonak kirola egiteko aukera izatea, kirola egitea herritarren bizi-kalitatea hobetzen eta pertsona bezala osorik garatzen laguntzen duen elementu gisa ulertuta.

2. *Hartzaileak*

Getxo Kirolakeko abonatu guztiak, kirol-instalazioak erabiltzeko eta jarduera fisikoko ikastaroak egiteko ezarritako tasa ordaintzeko behar adinako baliabideak ez dituztenak.

3. *Baldintzak*

Laguntza horien onuradunak izateko aukera izango dute ondorengo baldintza guztiak eta bakoitza betetzen dituzten pertsonak:

a) Aurrerago azaldutako baremoan agertzen diren gehieneko baliabide ekonomikoak izatea.

Laguntza honetarako, behar adinako baliabideak ez izatea ulertuko da pertsonak edo haren bizikidetz-unitateak artikuluko baremoan agertzen diren urteko baliabide gordin berak edo baxuagoak baldin baditu, bizikidetz-unitateko kide-kopurua kontuan hartuta. Bizikidetz-unitateko kideak izango dira senar-emazteak edo onartutako bikotea eta haiekin bizi diren 26 urtetik beherako seme-alabak, ezintasun fisikoa eta/edo psikikoa duten pertsona zaharragoak barne, betiere ziurtatzen bada bizikidetz-unitatearen barnean aurkitzen direla.

4. Baliabideak zehaztea

Baliabideak zehazteko, bizikidetz-unitatea osatzen duen pertsonak edo pertsonak jasotzen duten kopuru osoa zenbatuko da; hots, errenta, ordainsari, pentsio edo beste edozein titulu edo kontzeptu bezala.

Era berean, baliabide gisa hartuko dira errendimendu ekonomikoak sor ditzaketen ondasun higigarriak edo higiezinak, jabetza, edukitze edo gozamenerako titulu juridikoa izatean, edota horietatik jasotzen diren errendimenduak (alokairuak, eskualdatzeak, usufruktuak,...).

Edonola ere, hobaria jasotzen duen pertsonak konpromisoa hartuko du hobari hori jasotzeko egoera aldatzen bada, horren berri emateko.

5.- Hobarien zenbatekoak

Getxo Kirolakek gutxieneko bezala jarritako baliabideak ez dituzten pertsonak dagokien portzentajearen gaineko hobaria izango dute urteko kuotaren ordainketan eta jarduera fisikoko ikastaroetan, hobaria emandako ekitaldian, jarraian agertzen diren baremoen arabera:

P	≤LGS +20%	≤LGS +30%	≤LGS +40%	≤LGS +50%	≤LGS +60%	≤LGS +70%	≤LGS +80%	≤LGS +90%	≤LGS +100%	≤LGS +110%	≤LGS +120%	≤LGS +130%	≤LGS +140%
1	90,00%	75,00%	50,00%	25,00%	10,00%								
2	90,00%	85,00%	75,00%	50,00%	25,00%	10,00%							
3	90,00%	85,00%	80,00%	75,00%	50,00%	25,00%	10,00%						
4	90,00%	90,00%	85,00%	80,00%	75,00%	50,00%	25,00%	25,00%	10,00%				
5	95,00%	90,00%	90,00%	85,00%	80,00%	75,00%	50,00%	50,00%	25,00%	25,00%			
6	95,00%	95,00%	90,00%	90,00%	85,00%	80,00%	75,00%	50,00%	50,00%	25,00%	25,00%		
7	95,00%	95,00%	95,00%	90,00%	90,00%	85,00%	80,00%	75,00%	50,00%	50,00%	25,00%	25,00%	

8 edo +	95,00%	95,00%	95,00%	95,00%	90,00%	90,00%	85,00%	80,00%	75,00%	50,00%	50,00%	25,00%	25,00%
Zenbatekoa*	12.363,12	13.393,38	14.423,64	15.453,9	16.484,16	17.514,42	18.544,68	19.574,94	20.605,2	21.635,46	22.665,72	23.695,98	24.726,24

***2018: 735.9€ * 14 ordainsari=10.302,6**

(Zenbatekoak automatikoki eguneratuko dira urtero, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren zenbatekoa eguneratzen doan heinean).

8. Artikulua.- Familia ugarietzako hobaria

Indarrean den legediaren arabera, ugarizat hartzen den familiako kideak diren pertsoneri aplika dakiekeen hobaria, familiaren errenta estandarizatua 40.000 eurokoa edo baxuagoa baldin bada.

Subjektu pasiboek jakinarazi behar dituzte hobaria jasotzeko baldintzen gainean aldaketak gertatu badira. Administrazioak ofizioz egiaztatu ahal izango du baldintza horiek betetzen diren; halaber, subjektu pasiboak hobaria jasotzeko duen eskubidea egiaztatzeko dokumentu guztiak eskatu ahal izango ditu.

Zerga-kuota izango da tarifa orokorraren gainean familia ugariaren errenta estandarizatuaren arabera dagokion hobari-zenbatekoa aplikatuta ateratzen dena, ondorengo koadroaren arabera:

Familiaren errenta estandarizatua	Hobari-zenbatekoa
10.000 eurora bitarte	%90
10.001-20.000 euro	%50
20.001-30.000 euro	%25
30.001-40.000 euro	%10

FAMILIAREN ERRENTA ESTANDARIZATUAREN KALKULUA

Familiaren errenta (zerga-oinarri orokorra gehi PFEZen aurrezpeneko zerga-oinarria) familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientearekin (dagozkion koefizienteak batuko dira) zatituta ateratzen dena izango da:

Subjektu pasiboa	Koefizientea
Ezkontidearekin edo izatezko bikotearekin	1,5
Ezkontiderik edo izatezko bikoterik gabe	1,3
Genero-indarkeriaren biktima	1,3
Familia-unitatea osatzen duen seme-alaba bakoitza	0,3
Familia-unitatean desgaitasuna duen kideren bat =>%33	0,3

Hobaria aplikatzeko eskaera subjektu pasiboak egin beharko du, eta, horretarako, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du:

- Hobaria eskatzeko idatzia.
- Familia ugariaren titulua, Bizkaiko Foru Aldundiak emana.
- Familia ugariko kideek Ogasunean aurkeztutako azken Errenta Aitorpenaren fotokopia. Aurkeztu beharrik ez badute, Ogasunak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dute, egoera hori ziurtatzeko, eta erakunde berak emandako agiria, errentaren datu fiskalekin.

V.- ZERGA-OINARRIA

8. Artikulua

Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza da zerga-oinarria, dagokion tarifak ezartzen duen eran.

VI.- SORTZAPENA

9. Artikulua

Tasa sortuko da zerbitzua erabilitakoan edo jarduera egiterakoan.

VII.- KUOTA

10. Artikulua

Ordenantza honetan araututako tasaren kuota zerbitzu edo jarduera ezberdin bakoitzarentzat eranskinean jasotako tarifan ezarriko da.

VIII.- KUDEAKETA ETA DIRU-BILKETA

11. Artikulua

1.- Kontzeptu bakoitzeko likidazioak egingo dira, eta likidatutako kopurua sartuko da ERANSKINEAN azaltzen diren tarifetan jasotako arauen arabera.

2.- Abonatu izaerari modu mugagabea eutsiko zaio, bestelakorik adierazten ez bada. Abonatuak bere abonua beste urte batez berritzea onartzen duela usteko da, abonua modalitate berarekin jarraitzen duen bitartean.

Baja eman nahi duen pertsona abonatuak idatziz aurkeztu beharko du Polikiroldegiko harreraren eskura dezakeen inprimakiaren bitartez, eta hori urte bakoitzeko urtarrilaren 31 baino lehen, betiere, adinez nagusia bada. Adingabeei baja gurasoek edo tutoreek eman beharko diete.

Adina urtean betetzen denean, eta bonoan aldaketa suposatuko balu, adina betetzen den momentuan, betetzen dela ulertuko da.

Tasa horien gaineko zorrak premiamenduzko administrazio-prozeduraren bidez eskatuko dira.

Ordaintzeko epea igaro eta abonuaren kuota ordaintzeko nahikoa funts ez badago, pertsona zordunari baja emango zaio.

Berriro ere abonatua izango da ordaintzeko dagoen ordainagiria edo ordaintzeko dauden ordainagiriak ordaindutakoan.

3.- Pertsona interesatuek, matrikula egiteko garaian, ikastaroen kuoten zenbatekoaren ordainketa banku edo aurrezki entitate bateko kontuan helbideratzeko baimena eman beharko dute.

IX.- AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta ERANSKINA behin betiko onartuak izan dira 1999ko irailaren 23an, eta plenoren akordioz 2000ko irailaren 29an, 2001eko irailaren 28an, 2003ko azaroaren 28an, 2004ko azaroaren 26an, 2006ko abenduaren 22an, 2007ko apirilaren 27an eta 2007ko urriaren 26an, 2012 ekainaren 26an, 2016ko abenduaren 28an, 2018ko abenduaren 26an, 2019ko urriaren 31an aldatu ziren. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta 2020ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, harik eta aldatzea edo baliorik gabe uztea erabakitzen den arte.

ERANSKINA

A) PERTSONA ABONATUAK

Urteko ordainketa (1)	Pertsona errolatuak	Pertsona errolatu gabeak
	Eurotan	Eurotan
FAMILIA-KUOTAK		
Familia-kuota	181,20	343,50
Familiadun bakarrekota (2)	132,45	249,75
65 urtetik gorako familia-kuota	59,85	343,50
0 eta 6 urte arteko seme-alaba bakoitzeko	1,20	2,40
7 eta 12 urte arteko seme-alaba bakoitzeko	5,10	10,05
13 eta 17 urte arteko seme-alaba bakoitzeko	9,45	18,00
18 eta 21 urte arteko seme-alaba bakoitzeko	28,65	58,05

22 eta 25 urte arteko seme-alaba bakoitzeko	48,60	91,20
BANAKO KUOTAK		
Banakoa (3)	118,65	221,70
Banakoa, 26 urtetik beherakoentzat	71,25	133,05
Banakoa, 65 urtetik gorakoentzat	31,20	221,70

(1) Pertsona abonatuak izan daiteke urteko edozein momentutan, inskripzioaren lauhilekoari dagokion tasa ordainduz gero: 1. lauhilekoa = urteko kuotaren %100; 2. lauhilekoa = urteko kuotaren %80; 3. lauhilekoa = urteko kuotaren %40.

(2) Alargunak, guraso bakarrekoak, bananduak eta dibortziatuak kontuan hartuko dira, egoera hori egiaztatzen badute.

(3) Banako pertsonak eta 25 urtetik gorako seme-alabak kontuan izango dira.

(4) Getxo Kirolak-ek hitzarmenak egin ahal izango ditu beste udalerriekin, pertsona errolatutakoen tasak udalerririk horietako herritarrenekin homologatzearen.

Hitzarmen horietan ezarriko dira tasak homologatzeko baldintzak, eta, hala behar izanez gero, baita horietan aurreikusitako salbuespenak eta hobariak ere.

B) PERTSONA EZ ABONATUAK

TEAren kirol-instalazioetan sartzeko, hasiera batean, abonatuak direnek izango dute eskubidea. TEAren instalazioetan kirola praktikatzeko aldiari aldiko erabiltzaileek honako tarifa hauek aldeztu aurretik ordaindu beharko dituzte sarreran, sartu ahal izateko:

B1) SARRERAK

Getxo Kirolak-en instalazioetan aldiari aldiko erabiltzaileak sartzeko, sarrera hau ordainduko da:

Banakoa 3,00 euro

(5) Sarrerak egunean behin bakarrik sartzeko balio du. Instalaziotik irtenez gero, sarrera berria erosi beharko da berriro sartzeko.

(6) Sarrera eskuratzeak berarekin dakar egun berean instalazioak erreserbatzeko eskubidea. Horretarako, erreserbari dagokion tasa ordaindu beharko da.

B2) IGERILEKURAKO ABONU BEREZIAK

30 bainu (instalazioetan sartzeko barne)	90,00
10 bainu (instalazioetan sartzeko barne)	35,00

1 bainu (instalazioetan sartzea barne)	4,00
--	------

C) INSTALAZIOEN ERABILERA ETA ERRESERBAK

C1) INSTALAZIOEN ERRESERBA

Instalazioak erreserbatzeagatik, argi elektrikoarekin –behar izanez gero- orduko eta frakzioko:

EUROTAN

Pilotalekua erreserbatzea	3,60
Argiaren gehigarria (Fr. 1-2-4)	2,30
Argiaren gehigarria (Fr. 3-5)	1,60
4. pilotalekua erreserbatzea (kiroldegiko pista bezala)	10,50
Argiaren gehigarria	2,30
Kanpoko tenis-pista erreserbatzea	3,20
Argiaren gehigarria	1,60
Tenis-pista estalia erreserbatzea	5,00
Argiaren gehigarria	1,60
Kanpoko padel-pista erreserbatzea	3,20
Argiaren gehigarria	1,60
Padel-pista estalia	5,00
Argiaren gehigarria	1,60
Polikiroldegiko kanpoko pistetako argiaren gehigarria	1,60
Kiroldegiko modulu 1 erreserbatzea	6,40
Argiaren gehigarria	1,00
Estalitako kiroldegia erreserbatzea	19,30
Argiaren gehigarria	2,30
Futbol-aretoko zelai artifizialak erreserbatzea	19,30
Argiaren gehigarria (faseka)	1,60
Errugbi zelaia	90,00
Argiaren gehigarria	3,20
Belar artifizialeko zelaiak erreserbatzea (2 ordu edo frakzio bat)	90,00
Argiaren gehigarria (faseka)	3,20

(7) Pilotalekuak edo kanpoko tenis-pistak erreserbatzerakoan, 18 urtetik beherako abonatuak ez dute tarifarik ordainduko, betiere, erreserba ordu bat bete baino aurreko 15 minuturen barruan egiten badute. Aukera horretarako, parte-hartzaile guztiek 18 urtetik beherakoak izan behar dute. Laugarren pilotalekua ez da polikiroldegiko kantxatzat hartuko. Pilotalekuak euskal pilotan eta frontenisean aritzeko erabiliko dira.

(8) Polikiroldegiko kanpoko pistak gehienez 2 ordu jarraian erreserbatu ahal izango

dira egunean abonatu bakoitzeko.

D. JARDUERA FISIKOKO IKASTAROAK

Ikastaro guztietan, egin ahal izateko, gutxienez inskripzio-kopuru bat beharko da hasi baino hiru egun lehenago.

Ikastaroa egiteko gutxieneko pertsona-kopururik ez badago, ikastaroa bertan behera utziko da, eta izena emandakoei dirua itzuliko zaie.

Getxo Kirolak-ek antolatutako jarduera fisikoko ikastaroetan parte hartzeko, hileko zenbateko hauek ordainduko dira:

Ekintza	Saio bat asteko/Hileko	Saio bi asteko/Hileko	Hiru Saio asteko/Hileko	Bost Saio asteko/Hileko	Bost saio eguneko/hamabost eguneko
Igeriketa pertsona helduak	17,70 €	27,90 €	39,30 €	49,95 €	
16 urte baino gutxiago	13,50 €	17,70 €	23,10 €	27,90 €	
Erraketak pertsona Helduak erraketak	28,95 €	39,30 €	49,95 €	66,75 €	
16 urte baino gutxiago	17,70 €	23,10 €	27,90 €	39,30 €	
Indoor Moduloa pertsona helduak	17,70 €	27,90 €	39,30 €	49,95 €	
Indoor moduloa 16 urte baino gutxiago	13,50 €	17,70 €	23,10 €	27,90 €	
Outdoorra pertsona helduak	17,70 €	27,90 €	39,30 €	49,95 €	
Outdoorra 16 urte baino gutxiago	13,50 €	17,70 €	23,10 €	27,90 €	
Uda taldeak					94,50 €

(9) Getxo Kirolak-ek prezio eta denboraldi berezien promozioak eskaini ahal izango ditu.

(10) 72 urtetik gorakoei %50eko murrizketa aplikatuko zaie ikastaroetan.

E) BESTE ZERBITZU BATZUK

ADINA	AZTERKETA MEDIKOAK	
-18	OINARRIZKOA	18€
+18		20€
-18	AURRERATUA	36€
+18		40€

Aulkiak alokatzea	1,60
Txartelaren kopia	4,00
Ikasleen laguntzaileentzako pasea	Doan

(11) Aulkiak alokatzeko tarifak egunean behin bakarrik erabiltzeko izango dira.

(12) Laguntzailearentzako pasea, 8 urte arteko (8 urtekoa barne) ikasle bakoitzeko bat, soilik erabiliko da instalaziora sartzen denean laguntzen duen pertsonarekin.

F. LOKALAK ALOKATZEA

F.1. Getxon helbideratutako entitateak eta/edo kirol-erako jarduerak egiteko.

	EGUNA	EGUN ½
	eurotan	eurotan
Ekitaldien aretoa	164,80	86,70
Batzar-aretoa	86,70	51,80
1-2 gela	64,90	39,00

F.2. Getxon helbideratu gabeko entitateak

	EGUNA	EGUN ½
	eurotan	eurotan
Ekitaldien aretoa	226,70	130,30
Batzar-aretoa	108,20	64,90
1-2 gela	86,70	49,50

F.3. Irabazi-asmorik gabeko entitateak, Getxon helbideratuak.

Kirol, gizarte eta kultur elkarteek instalazioak doan erabili ahal izango dituzte, ezohiko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, langile teknikoaren txostena eta Getxo Kirolak-eko lehendakariaren oniritzia izan ondoren.

G. KIROL-INSTALAZIOEN ALOKAIRUA

G.1. Getxon helbideratutako entitateentzat, eguneko edo frakzioko tarifak ondorengoak izango dira:

	Eguna	Egun ½	2 ordu
Pilotalekua (*)	750,80	452,90	
Estalitako polikiroldegia (*)	750,80	452,90	
Estalitako tenis-pista (*)	750,80	452,90	
Getxo Kirolak-en zelaiak (belar artifiziala) (*)	1.126,30	679,20	200,00
Erabilera anitzeko aretoak (*)	206,10	124,20	

(*) Soilik ezohiko kasuetan eta langile teknikoaren txostena eta Getxo Kirolak-eko lehendakariaren oniritzia aurrez izanda.

G.2. Getxon helbideratu gabeko entitateentzat eguneko edo frakzioko tarifak hauek izango dira:

	Eguna	Egun ½	2 ordu
Pilotalekua (*)	1.126,30	679,20	
Estalitako polikiroldegia (*)	1.126,30	679,20	
Estalitako tenis-pista (*)	1.126,30	679,20	
Getxo Kirolak-en zelaiak (belar artifiziala) (*)	1.689,40	1.018,90	300,00
Erabilera anitzeko aretoak (*)	309,10	186,40	

(*) Soilik ezohiko kasuetan eta langile teknikoaren txostena eta Kontseilu Errektoreko lehendakariaren oniritzia aurrez izanda.

G.3. Getxon helbideratutako entitateak, irabazi-asmorik gabek

Kirol, gizarte eta kultur elkarteek instalazioak doan erabili ahal izango dituzte, ezohiko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, langile teknikoaren txostena eta Getxo Kirolak-eko lehendakariaren oniritzia izan ondoren.

(13) Tarifa horiek igo ahal izango dira Getxo Kirolak-en irizpidearen arabera, kontuan hartuta baliabide bereziak behar izatea; hau da, segurtasuna, garbiketa, langileak, aulkiak jartzea eta kentzea, altzariak eta/edo zoruak edo bestelakoak, edota jai-egunetan edo gauzez egitea.

H. ESKOLA-IGERIKETA IKASTAROAK

Getxo Kirolak-ek antolatutako eskola-igeriketako ikastaroetan parte hartzeko, hileko ondorengo ordainduko da:

* Getxoko udalerriko ikastetxeak eta ikastolak	31,20 euro/ikasleko
* Beste udalerrietako ikastetxeak eta ikastolak	33,50 euro/ikasleko

I. TORNEO SOZIALAK

Getxo Kirolak-ek antolatutako torneo sozial ezberdinetan eta/edo udalerriko kirol-entitateekin lankidetzan parte hartzeagatik ondorengo ordainduko da:

Banakoak

Haurrak eta 18 urtetik beherakoak	5,90 euro
Helduak	11,80 euro
Bikoteak	
Haurrak eta 18 urtetik beherakoak	11,80 euro
Helduak	17,80 euro
Taldeak	
Helduak	118,90 euro

J. PROMOZIO ETA DENBORALDIKO KANPAINAK

Getxo Kirolak-ek antolatutako promozio eta/edo denboraldiko kanpainetan parte hartzeko, ondorengo zenbatekoa ordainduko da:

	Fadurako abonatuak eta Mendi Taldeetako bazkideak	Ez abonatuak
	Eurotan	Eurotan
Helduak	14,20	17,80
18 urtera arteko gazteak	5,90	9,50
65 urtetik gorakoak	11,80	15,40
Minusbaliatuak	11,80	15,40

EGUN OSOKO IRTEERAK

Helduak	17,80	24,90
18 urtera arteko gazteak	7,10	10,70
65 urtetik gorakoak	14,20	17,80
Minusbaliatuak	14,20	17,80

K) GOBELA POLIKIROLDEGIKO PARKINGEAN IBILGAILUEN APARKALEKUKO PARTZELEN ERABILERA PRIBATIBOA

I.- 25 URTEKO EMAKIDAK

TARIFA

PARTZELA- MOTA	PARTZELAREN AZALERA. M2	PREZIOA €
I	13,62	13.257,11
II	11,25	12.051,92
III	17,16	14.436,81
IV	19,80	12.500,00
V	13,58	12.632,21
VI	17,33	14.436,81
VII	18,96	14.436,81
VIII	16,07	13.835,27
IX	15,66	13.835,27
XI	14,31	13.233,74
XII	14,71	13.233,74

TARIFAK ERABILTZEKO ARAUAK

A)1.-Emakidaren epea: 25 urte, lurpeko aparkalekua jendearentzat irekitzen den egunetik kontatzen hasita.

2.-Aparkalekua jendearentzat ireki ondoren eskatutako eta/edo emandako plazetarako, epea 25 urtera bitarte geratzen dena izango da.

Behin epea amaituta, interesatuak hala eskatuta eta Udalak aldeko erabakia aurrez emanda, emandako emakidak luzatu ahal izango dira Korporazioak horretarako ezarritako baldintzetan; edonola ere, emakidari luzapenak gehituta ezingo dira 75 urte gainditu.

B) Emakidaren lagapena. Lagapenaren prezioa.

Emakidaren prezioaren balio eguneratua da. Honako hau da formula:

$$\text{Eguneraturiko balioa} = \frac{\text{Hasierako balioa} * (25-N) * X\%}{25}$$

Izanik:

N: Aparkalekua jendearentzat irekitako egunetik igarotako urte-kopurua.

X: Metatutako KPI-ak $[(1+ KPI1) (1+KPI2) (1+KPI3) \dots (1+KPI_n)]$

Prezio hori bera emakidaren erreskatean agertuko da.

II.-DENBORALDI TXIKIAGOKO ERABILERA PRIBATIBOA:

- a) Urteko abonua: 700 euro
- b) Hileko abonua: 65 euro

Hemen jaso gabeko emakiden erregulazioari dagokionean, Getxoko Udalak behin-behinean onesten dituen partzelen emakidaren baldintza teknikoan pleguan ezarritakoa beteko da.